

GOROLDIOA ERROTARRIAN

Euskal Herriko errotarri hobiak, lanbide ahaztua, kultura ondare paregabea

 **KULTURA /** Xabier Izaga Gonzalez

Mendia jende askoren sustengu izan da hainbat mendetan zehar. Artzaintza, ikazkintza edo fruitu biltzea familia eta herri askoren lanbide izan dira. Literaturan, zineman, are mitologian ere jasota daude gure kulturaren parte garrantzitsua diren lanbide horiek. Bada ia ezezagun dugun mendiko lanbide bat, ordea, errotarri hobietakoa. Gogorra izan behar zuen 900 edo askotan 1.000 metrotik gorako altueran harriak zizelkatzeak. Baina ia ezezaguna da, mende askoan garrantzi itzela izan duen lana izan arren, zereal ekonomian oinarritutako jendarte batean ezinbesteko lanbidea baitzen. Errotak ezezagunak dira, jakina, haietako asko zaharberrituta ikus ditzakegu nonahi. Literaturan ez da errotari egindako testu ederrik falta, hala nola Juan Mari Lekunaren “Errota zahar maitea”, edo errotariari, Alfredo Donnayk Gasteiz ondoko Legardagutxikoari egindako kanta lekuko, baina ezer gutxi harrobi haietan egiten zuten funtsezko behararen gainean. Azken urteok arte, Antxon Agirre Sorondo, Jose Iturrate eta Carlos Martin ikertzaileen lanak izan dira salbuespena.

Antxon Agirre etnografo eta Eusko Ikaskuntzako eta Aranzadi Zientzia Elkarteko kideak, besteak beste, “Canteras de piedras de molino” artikulua idatzi zuen 2007an. Bertan dioenez, antzinateko gizakiak ehotzeko «naturak eskaintzen zizkion harriak» erabili zituen lehenik, ondoren itsasontzi itxurakoak agertu ziren, eta, geroago, errotarri biribilak, behekoa zulorik gabekoa eta goikoa zuloduna. Errotarri gero eta handiagoak egingo zituzten, haiek mugitzeko animalien eta ondoren uraren indarra erabili ahala.

«ERROTARRI» PROIEKTUA

Zorionez, ikerketa urri horiei azken urteotan Aranzadi Zientzia Elkartearen bultzada batu zaie, Javi Castro etnografoaren ardurapean. Haren lanaren emaitza benetan ikusgarria da. Ezin besterik

Luzaroan mendez mende errotarriak egiten aritutako harginen lanbidearen aztarnek ez dute inoren arreta erakarri. Azken urteotan, baina, abian dira Europan haien gaineko ikerketa ugari, eta aurkitutako harrobien zerrendaren buruan Gorbeia dago: Zuia, Zigoitia eta Orozko. Hona Aranzadi Zientzia Elkartearen ikerketen berri.

esan “Errotarri” proiektuak hartu duen dimentsioa ikusita. Castro-rengana jo dugu eta ezin abegitsuago eman digu bere lanaren berri. Hargin haien eta lanbide haren gaineko informazio urriaren kausaz galdetu diogu lehenik. Beste alde batera begiratu izan dela dio berak, ez zaiola mendiari bere osotasunean begiratu, eta arreta errotara bideratu dela, produkzio bideari alegia, errotarriak non eta nola egiten zituzten erreparatu gabe, errotarririk gabe ehotzerik ez dagoela ohartu gabe, eta harri horien garrantzia nabarmentzeko adibide

bat jarri du: errotako langet bat apurtzen bazen, erraz jar zitekeen beste, apurtutakoa esaterako gaztainondoa izanda, haritzeko batek ordezkari baitzezakeen; errotarria ordezte, baina, askoz zailagoa zen, hareharrizkoaren orde ezin baitzen kareharrizko bat jarri, eta 80 zentimetroko diametroa zuen baten orde ezin baitzen 70eko bat jarri, bi errotarriek neurri berekoak izan behar zuten eta. Horri guztiari ez zaio erreparatu.

2012an, “Aranzadiana” aldizkarian argitaratutako artikulua batean, hauxe zioen Javi Castrok:

Javi Castro eta Iñaki Garcia Uribe, Sagarrerrekako harrobian, Orozkon.
Mikel Isusi



«Errotak kontrolatzea Ahaide Nagusiek erabili zuten estrategia izan zen, baina zenbait kontzejuk eta elizak ere heldu zioten estrategia horri». Izan ere, Antxon Agirrek Donostia inguruko errotarri hobien gaineko lan batean dioenez, gutxienez 1400. urtetik hainbat harrobi Orreagako monasterioaren lurretan zeuden. Oso garrantzitsua zen, Castrok dioenez, erroten gaineko kontrola, eta errotarrien fabrikazioa kontrolatzea errota kontrolatzea zen. Horregatik, dokumentazio eskasiatik harago, ez da ondo ulertzen haren berri hain urri izatea.

Duela hamabost urte pasa hasi zen errotarrien bila, Errioxako lagun batzuekin, Baztanen eta oro har Nafarroako mendi garaietan. Duela zazpi urte, ordea, bete-betean ekin zion ikerketari, lehenengo Nafarroan –50 harrobi katalogatuta dauzka bertan–, ondoren Gipuzkoan, Bizkaian, eta, azkenik, Araban. 2012an “Aranzadiana” aldizkarian idatzi zuenez, Gorbeiko ikerketa 2014ko bukaera aldera bukatzea aurreikusita zuen, baina oraindik hango bazter eder-zabalak arakatzeko jarraitzen du, eta urte erdi barru-edo espero du bukatzea. Gogoan du nola Oiz mendira jo zuenean ezusteko galanta jaso zuen, errotarri hobi gehien-gehienak Nafarroan izango ziren ustea ustela gertatu baitzitzaion. Oizen 18 harrobi aurkitu zituen, eta Gorbeia jo zuenean, ikerketak gainez egin zion: momentu honetan 99 katalogatuta dauzka mendi horretan, eta, haren ingurumarietakoak zenbatuta, 107.

Errotarri hobi guztiak udalerrien eta eremu arabera sailkatzeko dituzte, eremu berekoei zenbakiak jarritz. Harri motari dagokionez, Gorbeikoak hareharrizkoak dira, Behe Kretazeokoak, eta 10 milioi urte inguru omen dituzte. Oizkoak ere hareharrizkoak dira, eta haien adin geologikoa 50 milioi urte ingurukoa da. Nafarroa Garaiko iparraldekoak ere hareharrizkoak dira, baina antzinakoagoak, duela 250 milioi urte ingurukoak, hain zuzen, eta errotarriak ekoizteko oso kalitate onekoak.

Aurkitutako harrobiak eta errotarriak Atlas Meulières delakoan erregistratzen dituzte, Errotarria proiektua 2005ean Grenobleko Unibertsitateko irakasle Alain Belmontek abiatu zuen Europa mailako proiektu horren baitan garatzen ari dira eta. Errotarri proiektuak inguru bakoitzaren arabera izena hartzen du; hartara, Gorbeia aldean “Errotarri Gorbeia” izendatu du Castrok. Horretan jardun du buru belarri azken urteotan.



Argi utzi nahi du Castrok hainbat laguntzailereren eta berri emaileren laguntza gabe ez zukeela arestian esandako emaitza ikusgarriak lortuko. Lekuan lekuko informatzaileen laguntza ez ezik, mendizale asko ere jarri dira berarekin harremanetan errotarri arrastoen edo arakatzeko moduko tokien berri emateko. Halaber, Gorbeia Parke Naturaleko arduradunen jarrera ezin hobea ere nabarmendu du –ikerketa haien baimenarekin egiten ari da, hori bai, inolako kostu publikorik gabe–.

Javi Castro Deban bizi da, eta 2012tik 65 aldiz egin du Debatik Gorbeiarako bidea. Urte hartako ekainean Zigoitiko Abadelaqueta Elkarte Etnografikoarekin harremanetan jarri eta hango zenbait informatzaileen datuak jaso zituen, baina ez ziren garrantzi handikoak. Errotarri hobien gaineko bibliografia bildu zuen eta 2014an berriro jo zuen Gorbeia aldera, Orozkora, hain zuzen, Iñaki Garcia Uriberekin batera, baina Nafarroan, Oizen eta kostaldean abiatutako ikerketak utzi gabe.

PROZESUA

Ez bide zen erraza harria aukatetik errotara eramaterainoko prozesua. Lehenengo, harria erauziko zuten ingurua aukeratzeko zuten, igurzketaz bidez ehotzeko harria, esan bezala, hartarako egokiena, hareharria. Bada kareharria duen errotarik, baina horrelakoak ez dira laboreak ehotzeko erabiltzen, olio ateraetzeko baizik, eta, igurtziz barik, zapalduz.

Eremuak, Gorbeia dagokionez, altuera handian zeuden. Haien %84, 700 eta 1.100 metro



Gorbeia errotarri hobien mapa.
Javi Castro

bitarteko garaieran, eta, %11, 1.100 eta 1.300 metro bitartean.

Behin harri aproposoko eremua aukeratuta, lauza handiak erauzten zituzten, edo naturak berak erauzten zituenak hartzen zituzten; esate baterako, izotzaren eraginez banandutakoak. Jarraian, errotatik eskaera jasoko zutenerako, lanean hasateko prest uzten zituzten. Izan ere, errota bakoitzak bere neurriko errotarriak eskatzen zituen. Errotarria lantzeko, konpas batekin markatu, haren perimetroa landu eta aldeetako bat berdintzen zuten. Ondoren erdigunea markatzen zuten eta zuloa egiten hasten ziren, harria guztiz zeharkatu gabe, ordea, apurtu ez zedin. Hori egin da, harriari buelta eman, beste alde lautu eta erdiko zuloa bukatzen zuten, tentu handiz, fase horretan harria hausteko arrisku handia zegoen eta.

Nafarroako, Bizkaiko eta Arabako hobi banatan errotarriak lantzeko tresnen aztarnak topatu dituzte. Lanbide horretarako berariazko tresnak ziren, hala nola mazoak, bi puntako piko-txa edo harmailuak. Aztarna horiek erakusten dutenez, falkak eta pletinak erabiliz mozten zituzten haitzak. Hamarren bat egun ematen zituzten harriak

Javi Castro Kanteratziker-2 harrobian, Zigoitian. Esteban Etxebarria



lantzen, eta gauz ere bertan geratzen ziren. Gorbeiako hobien erdietan hartarako prestatutako aterpe edo etxolen arrastoak topatu dituzte.

Errotarria bukatutakoan, le-
rak erabiltzen zituzten gurdia
zuten lekuraino eramateko, eta,
handik, idi pareak tiratuta,
errotaraino eramaten zuten, bi-
de egokiak aukeratu edota pres-
tatuta, kontuan izanda harri
haien batez besteko pisua 900
kilokoa zela. Batzuk arinagoak
ziren, baina beste batzuk 1.000
kilotik gorakoak. Batzuetan
100etik gora kilometrora era-
man behar zituzten harritzar
landu haiek, eta haietako ba-
tzuk itsasoz esportatzen zituz-
ten, Portugalera eta Frantziara.

Aurkitutako errotarriak ta-
maina askotakoak dira. Txikie-
nak, 40 zentimetroko diametro-
koak; handienak, 165ekoak.
Datu horietatik eta dokumen-
tuetatik zenbait ondorio atera
ditu Castrok. Alde batetik, Gor-
beian eta inguruan XII. mendea
baino lehenagotik errotarriak
lantzen zituztela uste du. Ho-
rren gaineko dokumenturik za-
harrena Joxe Iturratek Arabako
Artxibo Historiko Probintziale-
ko protokoloetan eskuratutakoa
da, 1550eko agiria, Zuiako Azer-

doiaga harrobikoa. Hala ere, IX.
mende bukaerako dokumentu
batek egun Zigoitiko udalerriko
kontzeju den Akosta herriko
errotaren berri dakar; beraz,
pentsatzekoa da garai hartako
errotarri txikiak lantzeko he-
rrixkatik gertu den Oketa men-
diko harriak erabiltzen zituzte-
la. Izan ere, badirudi errotarri
txikienak antzinakoagoak dire-
la, eta mendeen joanean haien
diametroa handituz joan zela,
labore kantitate handiagoa eho-
tzeko. Haien prezioa ez zen txi-
kia. XVII. mendean, 15 dukat in-
gurukoa, eta haien iraupena 10
eta 20 urte bitartekoa.

EZ DABILEN HARRIARI...

Esamolde zaharrak dioenez, da-
bilen harriari ez zaio goroldiorik

**Lanbide ia ezezaguna da, mende askoan
garrantzi itzela izan duen arren, zereal
ekonomian oinarritutako jendarte batean
ezinbesteko lanbidea baitzen**

**Errotarri hobi gehien-gehienak Nafarroan
izango ziren ustea ustela gertatu zitzaion
Castrori. Oizen 18 harrobi aurkitu zituen, eta,
Gorbeiara jotzean, ikerketak gainez egin zion**

Ezkerrean, Esteban
Etxebarria Oketako
harrobian, Zigoitian.
Eskuinean, Luiso Lopez
Orozkoko Elorritxueta-
ko harrobian.
Javi Castro



lotzen. Zentzu literalago batean,
kontrakoa gertatu zaie mendiko
errotarriei.

Ez da batere samurra hobiak
eta errotarriak mendian aurki-
tzea. Castrok urteetako eskar-
mentua du dagoeneko pilatuta,
eta irakaspen horiek bere kolabo-
ratzaileei transmititu nahi izan
dizkie. Ez omen da-eta batere
erraza, «harri-koskor biribilak
ikusteko begiekin begiratzen ja-
kin arte». Gorbeiako harrietan
ikusten zailenak urte askoan
abandonatuta egon ondoren
«naturak, lehengoratu nahian,
bere kolkora bildu dituenak» di-
ra, gehienak goroldioz estalita
baitaude.

Errotarri hobi ziurtatuen ko-
purua aste batetik bestera alda li-
teke. Edonola ere, oraindik orain
Euskal Herriko hobien gaineko
datuak honako hauek dira: La-
purdi, 3; Araba, 78; Trebiñu, 9;
Gipuzkoa, 4; Bizkaia, 53; Nafa-
rroa, 50.

Aranzadiko kideak azaldu due-
nez, Trebiñuko errotarri hobiak
ez daude Arabakoekin batera ka-
talogatuta, Atlas Meulières
proiektuak lekuen administra-
zio banaketa ofizialen arabera
sailkatzen baititu. Euskal He-
rrian, horrenbestez, 197 errotari
hobi daude egiaztatuta. Horieta-

tik 171 Castrok berak egiaztatu
ditu.

Europar mota horretako 900
harrobi daude; horrenbestez,
Euskal Herriak haien parte han-
di bat dauka. Zuia eta Zigoitia di-
ra lanbide horren aztarnarik
gehien dauzkaten euskal udale-
rriak, baina Bizkaiko Orozko ere
ez da atzean geratzen, eta, Euskal
Herrian ez ezik, Europako eta
munduko katalogoan ere lehen
postuetan daude Gorbeialdeko
hiru udalerrri horiek, laugarrena-
ri, Dordogneko Saint Crépin de
Richemont udalerrinari, alde na-
barmena aterata. Eta Bizkaiko
beste udalerrri bat ere, Berriz,
munduko lehenen artean ageri
da.

Honako haur da mundu mai-
lako sailkapena gaur egun: Zuia
(Araba), 40; Zigoitia (Araba), 37;
Orozko (Bizkaia), 29; Saint Crépin
de Richemont (Dordogne), 15;
Sant Lluís (Menorca), 14; Berriz
(Bizkaia), 13; Ciutadella (Menor-
ca), 11.

Une honetan Gorbeiako Parke
Naturalean 99 errotarri hobi
daude egiaztatuta, eta beste zor-
tzi haren ingurumarietan: sei
Orozkon, bat Zuian eta beste sei
Baranbion (Amurrio). Harrobi
guztietan, jakina, gutxienez erro-
tarri bat dago –osorik edo haren



zatiak–, baina batzuetan gehiago daude; batez beste, lau errotarri bakoitzeko. Denetara, 370, Gorbeia-aren azaleraren %30ean barreiatuta.

TOPONIMIA

Errotarri hobien ikerketarako lagungarria izan da batzuetan toponimia eta, halaber, ikerketak hainbat toponimo berreskuratze ere balio izan du. Castrok dioenez, ez dute ezer asmatu, berreskuratu baizik.

Bizkaiko Foru Aldundiaren “Kobie. Antropología cultural” aldizkarian argitaratutako “Notas etnohistóricas sobre la fabricación de piedras de molino en las canteras del macizo de Gorbea” artikuluan, Markiako eta Zarateko bizilagunek 1550tik 1765ra bi-

tartean harrobi horietan egindako lana dokumentatu zuen Jose Iturratek. Dokumentu horietan Larrialdai, Beraso Ankozar eta Azerdoia-aren harrobiak aipatzen dira, baina ez azkenaren leku berean dagoen eta gaur egun oso ezaguna den “Cantera de los Moros”, eta erraz ondorioztatzen da erdal toponimo hori ondorengo delako eta harrobi hori dagoen lekuaren jatorrizko izena Azerdoia-ga zela.

Bestetik, Jose Iturratek dioenez, harginen artean ondo moldatzen ziren eta bizikidetzatza ona zegoen, sarritan kontratu berean agertzen baitziren, alderdi interesatu zein eskrituraren lekuko gisa. 1641-1642ko zerga ezarri zieten, adibidez, denek batera aurre egin zioten.

Nafarroako, Bizkaiko eta Arabako hobi banatan errotarriak lantzeko tresnen aztarnak topatu dituzte. Lanbide horretarako berariazko tresnak ziren, hala nola mazoak edo harmailuak

Gorbeia-ko harrietan ikusten zailenak urte askoan abandonatuta egon ondoren «naturak, lehengoratu nahian, bere kolkora bildutakoak» dira, gehienak goroldioz estalita baitaude

JAVI CASTRO MENDIZALEA, ETNOGRAFIK HARRAPATUTAKO KIMIKARI ZORROTZA

Javi Castro, 64 urteko donostiarra, kimikaria da lanbidez, baina duela zenbait urtetatik etxekoei, lagunei eta zaletasunei nahiko denbora eskaintzeko aukera du. Esate baterako, mendiari. Duela 30 urtetik Aranzadi Zientzia Elkarteko kidea da; beraz, ez da etnografia ikerketaren arloan hasiberria. Landa-lana du gustuko, baita hainbat dokumentazio gunetan arakatzea ere. Eta, gustuko ez duen arren, dibulgazioa ere badu helburu, «beharrezkoa baita». Ikertzen dituen gaien gaineko artikulua ugari idatzi ditu zenbait aldizkaritan.

“Errotarri Gorbeia” proiektuan aurrera egin ahala, informatzaileak biderkatuz joan zitzaizkion, eta esker onez hitz egiten du dozenaka lagun horiez, hala nola kolaboratzaile estuak dituenek: besteak beste, Iñaki García Uribe ugaitarra, hain zuzen ere, hilaren 15ean Zigoitiko Ondategin “Gorbeia Araban” erakusketa inauguratuko duena, edo Luiso Lopez baranbiarra, Isidro Saenz de Urturi apodakarra, eta Esteban Etxebarria maugarra, Gorbeia-aren ezagutzaile apartak.

Aspaldiko hargin haiek bezala, Castrok eta haren taldeak ingurua aztertzen dute lehenik, errota lanerako lehengai egokiaren bila. Ezin hobeto azaltzen du Castrok bere lana harrobi bat aurkitzean egiten dituen txostenetan. Eskibelburuko harrobiaren gaineko txostenaren pasarte bat hartu dugu horren erakusgarri: «Zaratetik abiatu eta basoko pista hartuta, Alpartizarren zehar iparrerrantz jarraitzen dugu, bost kilometroan, Aratzaren gailurrera (1.136 m) iritsi arte. Jaitsiera

arinean, ipar-mendebalera joan behar dugu esploratzera. Artazaren gailurretik 500 metrora dagoen haitz inguru batera iritsi gara, aurreko batean Berretin mendiko sartaldeko magaletik ikusita genuen. Orein eme batzuk mendi-mazelan behera doaz, ugalde errekarantz, iparraldera bira egin eta Pagazuriko mazela igotzeko. Haitz horietara hurbildu garenean hareharri mota hori kaskar samarra dela ikusita, uste dugu ez dela harginek ustiatzeko modukoa. [...] Luisok sartalderantz joatea proposatu du. [...] sartaldeko mazelara joan baino lehen, zantzuak dituzten artean markatuta dauzkadan inguru-eremu baterantz abiatu gara, Zuiako lurretan. Hegorantz egin dugu, Aratzatik Ugalde ibarrerantz jaisten den hariztiaren burura iritsi eta berehala ikusi dugu kontuan hartzeko moduko harria duen hartxingadi bat, basoan gordeta. Eskibelburu da. Esplorazioari ekin diogu. Haitzak oso zatikatuta daude, eta pila handitan bilduta. Horrek pentsarazi digu leku horretan lan handia egin zutela. Pilaketak ez dira naturalak, eta harriak handi samarrak dira. Pila gehienak landareek estalita daude eta saiatu egin beharra dago errotarri-lanaren aztarnaren bat aurkitzeko. Elkarrengandik 50 metrotara banandu eta behetik gora sigisagan aurrera egin dugu, harik eta sakonune batean 130 x 30 zentimetroko errotarri bat topatu dugun arte, haritz zahar batek zaindua». Txostena askoz luzeagoa da, jakina; balio izan beza lagin txiki honek, ordea, Castoren lanaren zorrotasuna erakusteko.



Zarate, Eskibelburura iristeko lekuri-rik proposena. Javi Castro